

## **GHEKNren MANIFESTUA, GIZARTE HEZKUNTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA EGINIKOA**

### **Lanbide Etika eta Deontologia, Gizarte Hezkuntzan: Bidean ez galtzeko.**

Gaur egun, etengabeko aldaketak, bata bestearen atzetik sortutako krisiak, arazo amaigabeak, erakunde pribatu eta herri administrazioen egitura berriak, ikasketa planetan eginiko aldaketak, inoiz ikusi gabeko bazterkeria egoerak... direla-eta, beharizan eta oinarri berriak sortzen dira unibertsitate-prestakuntzan, eta eguneroko lanbide-jardueretan bertan ere bai.

Hori dela eta, GHEKNak, Nazioarteko Egun honetan, lanbidearen etika dimentsioari eta, ondorioz, deontologia-kodearen erabilerari buruzko hausnarketa egin dadin proposatu nahi dugu, eta nabarmendu egin nahi dugu kode honek gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeari lotutako gatazka etikoetan dokumentu orientatzaile gisa duen garrantzia.

Hain zuzen ere, eguneroko lanean esku-hartzeari eta hainbat zereginen antolamenduari lotutako gatazkak sortzen dira, eta horiek erakundearen kultura ezinegonaz sor dezakete. Ondorioz, arazoak sortzen dira, bai lan-taldean bertan bai gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen xede diren subjektuetan ere.

Egoera horretan, erakundeari buruzko hausnarketarako eta kritikarako prozesu bat planteatzetik urrun, kexaren kultura eraikitzen laguntzen duen ezinegonaz finkatzen da, eta ez du uzten egoera desblokeatu eta arazoa gainditzeko lagunduko duen proposamen-aldi batera eramango gaituen elkarrizketa prozesu bat garatzen.

Horren guztiaren ondorioz, gizarte eta hezkuntza esku-hartzean ikuspegi etiko bat sartzera eramaten gaitu; beraz, lanbidean sortzen diren gatazka horien aurrean hausnarketarako elementu gisa kode deontologikoa erabiltzeko beharra sortzen da. Beste alde batetik, beharrezkoa da estres-egoera honen aurrean motibazioa eta jarrera aldaketa ekarriko duten beste begirada batzuk iradokitzea, eta gizarte-hezkuntzaren deontologia-kodearen erabilerak hausnarketa erraztu dezake.

Denbora behar da hezkuntza-egitateari buruz pentsatzeko, deontologia-kodearen beraren argipean parte-hartzen dugun proiektuak ebaluatuz, talde-lan baten metodologia proposatuz eta sortutako gatazka etikoak analizatuz; hori guztia, lan-giroa eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzea bera hobetzeko xedez.

Garai hauek aldaketa garaiak dira, eta aldaketa oro aukera izan daiteke gizarte eta hezkuntza ekintzan beti presente egon behar duen malgutasuna zailtzen duten marko jakin batzuk gainditzeko. Hala ere, hori gauzatzeko, aldatzeko borondatea beharrezkoa da; gaitasun horren ezean (egin nahi izateko borondatea), ez dago ikastarorik zerbaiteko balioko duenik, eta ikaskuntza blokeatua geratzen da.

Era berean, globalizazio ekonomiko, politiko eta sozialak sortutako ondorioengatik, gizartearen eskubideen etengabeko gainbehera bizi dugu, eta gizarte-desberdintasunen hazkuntza esponentziala; hori dela eta, agian gaur beste inoiz baino gehiago, jendarte kritiko baten alde lan egin beharra dago.

Beraz, erreferentzi marko gisa giza duintasuna eta giza eskubideak izanda lan egin nahi badugu, erdigunean pertsonak ez ezik komunitatea ere jarri behar dugu, eta jakinaren gainean egon eta aztertu, hezitzaile garen aldetik, zein den gure ekintzaren zentzua, zertarako eta zergatik egiten dugun hori, "iparra" ez galtzeko eta giza garapenerantz eta humanizaziorantz bidea egiteko.

Gizarte, politika, kultura eta zientziaren inguruabar hauek eragina dute ekonomiaren ikuspuntutik, eta hainbat arrisku erakartzen ditu –hala nola, homogeneizazioa, desinformazioa, xenofobiaren handitzea, indarkeria...-, baina gizarte hezkuntza arlo teorikoan eta praktikoan eraikitzen jarraitu behar dugu eta, horretarako, alde batetik, hainbat erronkari aurre egin behar diegu eta, bestetik, horiei aurre egiteko garapen prozesuak lortu behar ditugu.

Esan nahi duguna da hainbat lan ditugula egiteko: jarduketan xede diren pertsonen parte hartu behar dute hezkuntza-erabakiak hartzeko prozesuetan, lan arloaren, akademikoaren eta gizarte mugimenduen artean sinergiak bilatu behar dira denon artean ezagupena sortzeko, eta, gainera, lanbide eta gizarte jardunen eraldaketan laguntza eman behar dugu, eta elkartrukerako sareak, bat egitekoak, sortu behar ditugu baterako ekintza proiektu bat lortzeko.

Azken batean, gizaki guztiak, ekologikoki jasagarria den gizarte batean, duintasunez bizi ahal izatea sustatuko duen mundu-etika baten alde egin behar dugu.

Horretarako, pertsonen parte-hartzea eta inplikazioa oinarritzko printzipioa da gizarte eta hezkuntza jardunerako. Etika eta moralaren aldetik ere printzipio bat izango da, gizarte justiziaren oinarri. Horrek, ezinbestez, diziplina arteko ikuspegi batekin lan egitera eramaten gaitu, genero ikuspegia, belaunaldi artekoa, kultur anitza, garapen jasangarri eta baketsua, elkartasunezkoa eta lankidetzakoa beregan hartzen duena.

Ondorio gisa esan dezakegu gizarte eta hezkuntza jarduna, lehenik eta behin, jardun politikoa eta etikoa dela, giza eskubideetan oinarritutako printzipio batzuek gidatutakoa, eta hainbat balio moraletan oinarritutakoa; horrek jardun onaren erreferente egiten du gure lana.

Gizarte Hezkuntzaren Deontologia Kodean jasotako balioak, gizarte eta hezkuntza jardunaren garapenean ikasi eta berrikasi beharrekoak. Ikuspegi honetatik, dimentsio etikoa gizarte hezkuntzan ondo jarduteari atxikia da; izan ere, irizpide etiko eta deontologikoei eustea hezkuntza harremanaren funtsezko muina da.

Gainera, horregatik guztiagatik garrantzitsua da lanbide elkargoek euren Lanbide Etika eta Deontologia Batzordeak edo Komiteak sortzea, hausnarketarako espazio eta denbora bat ahalbidetzen baitu. Ez dio soilik Kodea berari balioa ematen: indarrean eta bizirik jarrai dezan lortzen du eta lanbidearen garapena eta egokitu zaigun garaia doitzea ahalbidetzen du.

Gure erantzukizuna delako, Kontseilu Nagusian, bertan parte hartzen duten elkargoetako koordinazio lana eginda, gure deontologi printzipio orokorrak aldarazi eta eguneratzeko aukera aztertzen ari gara. Horretarako, gizarte hezkuntzako profesionalekin, hezkuntza komunitatekoekin, erakunde publikoekin, hirugarren sektorekoekin eta gizarte hezkuntzatik hurbil dauden profesionalekin batera aztertzen dugu egoera, dagoeneko abian den prozesuan.

Azken batean, Gizarte Hezkuntzaren nazioarteko egun honetan, lanbide etikari buruzko hausnarketa prozesu bat bultzatu nahi da, eta Gizarte Hezkuntzaren Deontologia Kodea ezagutarazi, gizarte eta hezkuntza jardunean tresna orientatzaile den aldetik. Izan ere, hezitzaileari lagundu egiten dio bere lanean eta komunitateari eta pertsonei eskaintzen zaien lanaren kalitatea hobetzen du.

Gure errealitatea aldakorra da, baina lanbidearen etikak eta deontologiak beti egon behar dute hor, bidean ez galtzeko.

2022ko urriaren 2a